

Andrei maitea:

Bagara ba zoro, gizakiok. Espazioa baino ezin dugu zizelkatu, eta hala ere, denbora zizelkatzen tematzen gara. Gara ala ginen?

Tabakalerako lagunek gonbidapen hau egin didate: 1977an zineari buruzko lezioak ematen zenituen urte horretara gutun bat bidaltzea, 40 urte beranduagotik, gauzak zer eta nola aldatu diren esateko. Alegia, denboran ispilu joko bat egitea, hitzen bidezko kiku bat, nahiz eta, ondo diozun bezala, “hitzak ahulak izan; hitzek ezin gizakiak sentitzen duen guztia adierazi” **[las palabras son flojas, no pueden expresar todo lo que siente el hombre]**. Eta ezer baino lehen bururatzen zaidana, ispilu joko hori egiteko beharko dizudala azaldu nola aldatu diren ispiluak zure garaitik hona.

Lehenik eta behin esango dizut zure *Ispilua* filma abiatzen den moduan abiatzen garela gu ere goizero: haur batek telebista pizten du zure filmean. Halaxe guk ere Telebista ez den telebista ttipi bat pizten dugu goizero. Telebista baino ispilua den pantailatxoa. Soilik, gaur egun, pizteaz gain aginduak ematen zaizkiola eta patrikan daramagula. Gure aiton-amonek telebistari hitz egiten zioten, erantzungo zielakoan. Guk barre egiten genien orduan, baina orain haiek egiten digute guri barre ispiluaren bestaldetik: ez da gure aiton-amonek telebistaren funtzioa ulertzen ez zutenik, baizik eta etorkizunean zetorkiguna guk baino azkarrago ulertu zutela haiek: egunen batean telebista horiek “inteligenteak” izango ziren eta erantzun egingo ziguten. Gure aiton-amonek Apple-en Siri ahotsari egiten zioten berba, hau oraindik jaiotzen ez zen arren.

Ispilutxoa aldean daramagu denok. Ispilu opako beltza izatea, aldea. Moleskine baten tamaina beretsukoa, argazki eta zine-kamera bezala funtzionatzen du. Idazluma eta kamera gauza bera izan zitezen desio zuen Alexandre Astrucen *camera-stylo*-aren ametsa bete da; denok gara orain zinegile, edo izan gaitezke behintzat; denok artista potentzial, patrikan daramagu zinema estudio osoa.

Ispilua zure filmeko eszenarik gogoangarriena hauxe da niretzat: emakume bat euripean, arrisku handi batetik ihesi. tratu txarrak jasan dituela pentsatuko genuke gaur beharbada, senarrarengandik ihesi doala edo. Nora, ordea? Luzea da sekuentzia, igaro du patioa, igaro du korridore amaigabea: blai doa, mela-mela. Egunkari bateko erredakziora sartu da, erdi historiko dago, larri, errata bat egin uste izan du, ez duela bere testua ongi zuzendu, alegia. Errotatibarraino igaro eta jada berandu dela jabetu da, ezin da zuzendu: baina eskerrak, ez zegoen erratarik, ameskaizto bat baino ez da izan, profesionaltasun gehiegia; testua, ongi zegoen. “Baina zer errata zen hori ba?”, galdetzen dio nagusiak, eta emakumezko zintzoak, jada lasaitua hartuta belarrira aitortzen dio, irribarrez, guk ez entzuteko moduan “errata basati” bat zela. Errata baten kezkarakin euripean lanera itzultzen den langile perfektionistaren istoriotxo hori aski, egunkari bat egiteak suposatzen zuen lanaren seriotasuna eta garrantzia munduari adierazteko. Bada, entzun hau, Andrei maitea: orain dena da errata basati bat, errata basatien erreinua da hau, errata basatiek agintzen dute ispiluaren barruan eta ongi ikusita daude erratak, hizkuntza berri bat sortu da haiei esker, hitz erdiekin, sintaxi desordenatu batekin. Erratak egingo ditugula dakiten robot prediktiboekin. *Autocompletar*. Eta erratak auresateko gaitasuna da etorkizuna asmatzeko lehen pausoa, ala? Nik hala ikusten dut, behintzat. Ze errata, ze akats egingo dugun jakin baldin badakite, beste guztia ere bai.

Idazle naizen aldetik, idazleei gustatzen zaizkien gauzak gustatzen zaizkit niri ere filmetan. Idazle bat gutxiesteko zure filmean idazle bati buruz zera esaten da, adibidez: “Hark ez du ulertzen liburu bat ez dela soldata bat, baizik eta berealdiko lorpena, proeza bat **[“No entiende que un libro no es un sueldo, sino una proeza”]**. Harrokeria bat emango luke gaur egun,

ezingo genuke hori esan. Idazlea deskalifikatzeko senar-ohi jeloskorrak erabiltzen duen bigarren xehetasuna ere aintzakotzat hartzeko modukoa da: “*Ukraniarra* da zure senar berria, ala?”. Poztuko zaitu jakiteak –edo agian ez–, duela 40 urte bezalaxe funtzionatzen duela “ukraniarraren” dialogo zati horrek.

Denok patrikan kamera bana daramagula esan dizut, baina ez da kamera soilik, ez da grabatzeko aparailua eta muntaia aretoa soilik. Batez ere, ispilu bat da patrikan daramaguna.

“Ispilutxo ispilutxo, nor da erreinuko ederrena?”. Ipuin tradizionala ez da inoiz gaur bezain egiazko izan. Agian pentsatuko duzu, parean jarri eta besterik gabe gure isla itzultzen digun horietakoa dela, XIX. mendean farfailaz jantzitako emakumeek palazzoetako jaietan masailak eta sudurra hautsezatzeko poltsoan eramaten zutenaren parekoa, edo beranduago boy scout-ek mendian elkarri morse mezuak bildatzeko erabiltzen zutena. Eta bai, balio du norbere burua makilatzeko; eta bai, balio du mezuak bidaltzeko ere. Badu antza apur bat ispilu zaharrekin gure ispilu berri honek, ez da, ordea, zehazki hori: ispilu opakoek hartu digute gain. Ispilu beltzak dira patrikan daramatzagun hauek, piztu eta itzali egiten diren ispilu intermitenteak. Plastikoa, aluminio, litio, koltan, kobre, beira funditu, eta eztainuarekine eginak. Meatzetik ateratzen dena inoiz baino garrantzitsuagoa da gure bizitzan, baina, bai gauza kurioa, meatzarietara buruz inoiz baino gutxiago hitz egiten da. *Smartphone* deritze ispilutxo hauei, Andrei baina izena da gutxienekoa, izan dituzte beste izenak lehenago eta izango dute beste izenik beranduago. Nik, *smartmirror* jarriko nieke edo *fakemirror* edo *foolingmirror*. Urre piska bat ere ba omen dute osagaien artean, eroale azkarra da urrea, badakizu. 50.000 *smartphone* geureganatuta, kilo bat urre atera ahalko genukeela irakurri dut. Non irakurri dudan hori? Bada, barka, lotsa eta guzti ematen dit esateak, baina ispiluan bertan irakurri dut, kamera, eta ispilu izateaz gain, gure patrikako gailu honek informazio parrastada ematen duen entziklopedia bezala ere balio baitu: ispiluak ispiluari buruzko gauzak ere kontatzen dizkigu, askojakina da ispilua, lixtopasatua. Horixe da bere xarma. Patrikan daramatzagun ispilu beltz hauek, sakelako semaforoak, piztu egiten baitira, nahieran. Botoitxo bat ukitu orduko koloretsu ageri dira patrikako ispiluak, txikle bolak diruditen esfera laranja, berde eta urdin deigarriak betetako pantailatxoak. Umetu egiten gaituzte ispilu hauek, sonajero digitalak dira, geure esku eta begien entretenitzaile eta lasaigarri. “*Loa, loa, txuntxurun berde, loa loa Samsunga...*”

Gauza bitxia da, honenbestez, ispilu sofistikatu samarra, konturatuko zinenez, diskotekako ispilubola mila norabidetan argia islatu eta multiplikatzen duena, zorabiagarria. Diskoteka oso bat, Bach eta Shostakovich, David Bowie eta The Beatlesen kantu guztiak sartzen direna. A, eta ahaztu aurretik detailtxo bat: telefonoz deitzeko ere balio du ispiluak, ipuin tradizioaletako hark bezalaxe, zeinari galdetu egiten baikenion: “Ispilutxo ispilutxo, nor da erresumako ederrena?”. Eta hark, ispiluak, *smartphone*-aren aitzindariak, erantzun egiten zigun. Egiaz, agian, zuzenena litzateke esatea Edurnezuriren ipuinak asmatu zuela *smartphonea*.

Ipuinean bezala, ispilua subkontziente freudenianoaren pareko da. Internet ere, subkontzientearen pareko da: zer esan nahi du horrek? Bertan nahikoa sakonduz gero beti topatuko duzula zeure beuruari buruz gustuko ez duzun zerbait. *Ego surfing* deritzo... Saiatzea besterik ez duzu zerorren zimurrak topatzeko. Eta ez fisikoak bakarrik, gure ispilu berri honek arimaren zimurrak seinalatzen baitizkigu nabarmen. Atzokoak, gaurkoak, biharkoak, denboratik at dauden zimurrak.

Barka Andrei, oraintxe jabetu naiz *internet* zer den ere agian ez duzula jakingo. Baina ziur irakurri duzula Philip K. Dick-en “Ubik” nobela, ezta? Bada hori, Internet “Ubik” da.

Tessa B. Dick, Philip K. Dicken emazteetako baten arabera: “Ubik jainkoaren metafora da. Ubik ahalguztiduna da eta orojakilea. Ubik ubikuoa da. *Spray* lata bat Ubik-ek har dezakeen formetako bat baino ez da-Ubik errazago uler eta erabil dezagun, baina ez da lata barruan dagoena laguntzen diguna, baizik eta laguntza jasotzeko promesa horretan dugun fedea” **[Ubik es una**

metáfora de Dios. Ubik es todopoderoso y omnisciente y Ubik es ubicuo. La lata de spray es solo una forma que Ubik adopta para hacerle a la gente más fácil entenderlo y usarlo. No es la sustancia dentro de la lata lo que les ayuda, sino más bien su fe en la promesa de que les ayude]

Ubik nobelako pasarte batek honela dio: “Ajeak jota oraindik, albiste interplanetarioen alerta-adierazleari begiratu zion zalantzati, albiste lokalei begira entretenitu zen eta azkenean zurrumurruen saila hautatu zuen” (**“Sintiendo aún los efectos de la resaca, vaciló ante el indicador de noticias interplanetarias, se detuvo en noticias locales y finalmente seleccionó el apartado chismes y rumores”**). Aholku bat, Andrei: Yahoo, Google edo ulertzen ez duzun hitzen bat topatuz gero, zuk pentsatu Ubiken sinonimo dela.

[Ez dakit, bestela, internet nola definitu. Internet iparamerikarren asmakizun bat da. Ezin nezake pentsa (rrek edo are, soviatarrek asmatu izan balute zer eta nolakoa izango zatekeen. Ezberdina seguru. Ez, errusiarrek ezingo zuketen internet asmatu, Errusia herrialde ezkorra delako eta internet asmakizun baikorra. Sovietarrek bai, asmatu ahal izango zuketen agian, soviatar izateak baikortasuna eskatzen baitzuen. Hala dio behintzat Julian Barnesek Shostakovichen bizitzan oinarritutako liburu batean: “errusiar izatea pesimista izatea zen; soviatar izatea baikor izatea zein hein berean. Horregatik “errusia sovietikoa” esamoldea kontraesan galanta besterik ez da. Botereak ez zuen hori ongi ulertu. “Shostakovich baikor bat?” Hori ezinezkoa zen”. **[ser ruso era ser pesimista; ser soviético era ser optimista. Por eso la expresión “Rusia soviética” era contradictoria. El Poder nunca había comprendido. Decir “Un Shostakóvich optimista” era otra incongruencia].**

Denbora zizelkatzea zenuen zuk asmo, Andrei, eta geuk ere geure burua zizelkatu nahi genuke, baina egiaz, dagoeneko zizelkatzen dugun gauza bakarra geure irudia da. “Zizelkatu”, “eskulpitu” hitza bera zaharkitua dago. “Facebook-eko perfila aldatu” edo “txiokatu” esango genuke orain. Konformatzen gara islatzen dugun irudia bezatzearekin. Edo bezatze horren ilusio hutsarekin. Ispiluen domestikatzaileak gara, jabetu gabe agian, ispiluak domestikatu gaituela gu.

Ispilua askotan lotu da eromenarekin. Stanislav Lem-en *Eraldaketaren ospitala*/**El hospital de la transfiguración** nobelako pasarte honetan, kasu: “Neskatilak komunean pasatzen zuen eguna, komuneko horman ispilu bat zeukalako. Komunikatzen zutenean, ate ondoan geratzen zen, eta hara inguratzen ziren guztiei erregutzen zien, negarrez, uzteko mesedez sartzen. Lortzen ez bazuen, bere isla ikusten saiatzen zen, parean topatzen zuen edozein gailu edo objektu kromaturen distiran”. **[“La chica se pasaba el día en el cuarto de baño porque allí había un espejo de pared. Cuando la echaban, se quedaba merodeando cerca de la puerta, y se abalanzaba sobre todos los que la abrían, suplicando implorando que le permitieran entrar para poder verse en el espejo. De hecho, intentaba buscar su reflejo en cualquier accesorio cromado que encontrara”.**]

Ez da kasualitatea agian, “Ispilua” filmaren hasiera samarrean Txekhoven *Seigarren pabilioia* nobela aipatzea. Ezin izan diot tentazioari eutsi eta irakurri egin dut Txekhoven nobelaren PDF bat. Ez, Andrei: PDF ez dira partidu politiko demokristau baten siglak, baizik eta ispiluak Txekhoven obra irakurtzeko eskaintzen digun modua. Txekhoven nobela labur honetako pasarte batean zera irakur daiteke: “Existitzen direnez kartzelak eta existitzen direnez eroetxeak, norbaitek eraiki dituzenez, beste norbaitek bete egin behar ditu; zu ez bazara, ni izango naiz, eta ni ez banaiz beste hirugarren bat”. **(“Puesto que existen las cárceles y los manicomios, alguien debe permanecer en ellos; si no es usted, seré yo, y**

si no soy yo, será algún otro”) Etxeak sortzen du bere biztanlea? Egiturak bere mamia? Sarkofagoak bere momia?

Zuk zinema lezioak ematen dituzun bitartean 1977an, *Encuentros en la tercera fase* filma estreinatu da: estralurtarrek izandako enkontruak kontatzen zituena. Filmaren trailerreko lema, hauxe: *We're not alone*. Ez gaude bakarrik. Orain bai, ordea. Bakarrik gaude eta *smartmirror*-ean begiratzen dugu, geure buruaren aldagaien bila. Nor da erreinuko ederrena? Bada beti bat zu baino ederrago. Ispiluak sortzen dituztenez eta plastiko, aluminio, litio, koltan, kobrea, beira funditu, ezta inu eta are urre zatitxo minimoekin egindako ispilu magikoak egiten dituztenez hamarmilaka, norbaitek erabili behar ditu gero. Mamia hautatu eta kontrolatzen dugula uste dugu, baina egitura inposatu baten barruan. Eta egitura inposatu baten barruan bizi garelarik, hauta eta kontrolatu daiteke mamia?

Hau pagotxa: ispilu bat bakarrik ez, kamera bat bakarrik ez, telefono bat bakarrik ez, Delfosko orakuluaren sakelako bertsioa daramagu patrikan, Andrei! Irudiak grabatu bakarrik ez, irudiak ikusten ditugu bertan, zine pantaila bonsaian. Etorkizuna eta iragana, ispilu joko berean. Gutun hau 1977. urtera igorriko dizudan jakitun, “ispilutxo, ispilutxo, zer gertatu zen 77an?” galdetu diot. Eta ispiluak erantzun. 1977an, zuk zineari buruzko lezioak ematen zenituen egunean, apirilaren 25ean, bi hilabete pasa falta zirela, Mackintosh, Apple II etxerako lehen mikrokonputagailu masiboa ekoizten has zedin. George W. Bush aita zela CIAko burua. Jimmy Carter zen AEBetako presidentea eta Palestinak bere estatu propioa izateko eskubidea aldarrikatu zuela Carterrek. Breznev, urte batzuk beranduago tropa sovietarrak Afganistarena muhaidinen kontra borrokatzea bidaliko zituena, iristear zen Soviet Batasuneko buruzagitzara. 1977an gertatu zen, eta gertatzen ari zen, eta oraindik gertatzen ari da 2017ko ispiluan. 1977ko albistea da, a zer ezustekoa, AEBetako gobernuak murriztu egin duela beren hiritarrek zenbait herrialdetara bidaiatzeko daukaten eskubidea. Herrialde horiek dira Kuba, Vietnam, Kanboia eta Ipar Korea. 1977an *White Riot* kantua argitaratu zuen The Clash taldeak euren lehen diskoan. Honela dio kantua: “Istilu zuria, nork bere istilua, istilu zuria, neronen istilua nahi dut enetzat. Beltzek arazo asko dituzte, baina bost axola zaie adreilu bat botatzea. Zuriak badoaz eskolara, bertan erakutsiko dizute zer den “jan-da-lo” egitea. Eta denek ikasten dute zer den esaneko izatea. Inork ez du kartzelara joan nahi. Boterea, hura erosteko bezain aberats direnen eskuetan dago. Eta gu, oinez kalean barrena, ezertan saiatzeko koldarregi. Ahalduntzera zoaz ala obeditzera? Atzerantz zoaz ala aurrerantz zoaz?” 1977. The Clash. *White Riot*. 1977ko *Istilu zuria*, 2017ko *ispilu beltzean*. Ez al da ederra *istilu* eta *ispilu* hitzak horren antzekoak izatea?

1977an Frankismotik atera berri eta lehen hauteskunde demokratikoak ospatu aitzin, Espainiako gobernuak gutxienezko soldata berria du eztabaidagai: 440 pezetakoa zen eguneko (3 euro eskas). Europako Elkarte Ekonomikoa hegoalderako pausoa prestatzen ari da: Portugal, Espainia, Grezia. 77ko ispiluan albistea irakurtzea rewind botoiari –edo are okerrago *autoreverse* botoiari- sakatzearen antzeko zerbaite da, bukle batean bizi garelako irudikatzea.

Zuk hitzaldia eman eta astebetara, maiatzaren 1ean 36 pertsona hilko dituzte Taksim plazan, Istanbulen, Langilearen Eguneko ospakizunaren kariatara. 77an gertatu zen eta oraindik gertatzen ari da. Sex Piktosek *God Save the Queen* argitaratu du. Frankismoaren ondorengo Espainiako lehen hauteskunde demokratikoak ospatu dira ekainaren 15ean. Elvis Presleyk jendaurreko azken kontzertua eskaini du Indianapolisen. John Lennon *green card* erresidentzia iraunkorreko baimena emango diote New Yorkeko Dakota eraikinaren parean lasai arraio erail dezaten *hiru* urte barru. Soyuz-en joan-etorri guztiak, kosmonauten garraioan; Sovietarrek eta Ipar-amerikarrek bata bestea garaitu nahian egindako froga nuklearren norgehiagoka. Eta berdin frantsesek, atzera ez geratzeko Mururoako atoloian, eta Espainia Alemaniarekin negoziatzen ari da zentral nuklearretarako materiala erosteko; eta Libia eta Egiptoren arteko muga liskarrak daudeM eta Soweton, Hegoafrikan, gatazka latzak; eta Madrilen bost abokatu laboralista hil dituzte faszistek Atotxan; eta otsailaren 10ean Moskuko metroan leherketa bat gertatu da sekula erabat argituko ez dena; eta Pinochet nagusi da Txilen, jakina. Eta hau dena 77an gertatu zen eta gertatzen ari zen eta oraindik gertatzen ari da. Zure ispiluan. 40 urte joan dira eta esan

dezakedan bakarra da zure filmeko ama horrek datxa ondoko eraikina erretzen den bitartean umeei esaten diena: “Sute bat, umeak: baina ez oihurik egin. Sua dago kanpoan, baina espanturik ez. Sua dago kanpoan, baina iskanbila eta istilurik ez” **[“Un incendio, pero no gritéis”]**

Horren ondo ulertu zenuen, Andrei, zure filmean irudi historikoak irudi intimoekin josi zenituenean. Gaurko ditxosozko internet ere hori baita: intimitatea eta historia, mundu publikoa eta mundu pribatua txatalka josten diren anabasa bat; ez zure filmak bezain ongi ordenatua, dena esan behar da. Historia eta intimitatearen talka eta talka horri etekina atera nahi dion jendea Androideek ardi mekanikoekin legez, “Amesten ote du Internetek Tarkovskiren film bat izatearekin?”. Hala balitz, balegoke esperantzarik.

(Patrikan daramatzagun ispilu hauetan badago zerbait oso intimoa; intimoa, baina konpartitua. Mundu zibilizatuko bakardade guztiak lotzen dituzte ispilutxo horiek, eta bakardade sare horren batzbestekoa konpartitu eta ziztatzen du zainean barrena norberak. Orain, zelako pereza, Facebook zer den azaldu beharko nizuke, baina nik baino askoz hobeto egiten du hori Byungchul Hanek: “Datsegit” hori “me gusta” botoia, “amén” esan eta amen egiteko modu digitala da. Botoi horretan klik egiten dugunean dominazio sare ilun bati men egiten diogu. *Smartphonea* ez soilik bigilantziarako gailu eraginkor bat, konfesionario mugikor bat ere bada. Facebook da eliza, sinagoga globala (literalki, kongregazio digitala)” **[El "me gusta" es el amén digital. Cuando hacemos clic el botón de "me gusta" nos sometemos a un entramado de dominación. El "smartphone" no es solo un eficiente aprato de vigilancia, sino también un confesionario móvil. Facebook es la iglesia, la sinagoga global (litralmente, la congregación) de lo digital.]**

[Mundu zibilizatuko balizko edertasun guztiak lotzen dituzte ispilutxo hauek eta edertasun horren batzbestekoa konpartitu eta ziztatzen dugu zainetan. Edertasuna dioenak zatarkeria dio. Edertasuna dioenak gordinkeria dio. Eta sortzeko tresna izugarri horrekin ezin asmaturik gabiltza oraindik, narratiba berri baten bila. Aholku eskatu nahi nizuke. Merezki du idazten segitzaek, idazteak, filmatzaek? Zein proportziotan men egin beharko ote genioke historikoa eta publikoa denari eta zein proportziotan intimoa denari? Intimoa eta pribatua gauza bera al da?]

Zure filmeko eszenarik gogoangarrietako bat lurrera eroritako esne ezinago zuria miazkatzen duen katu ezinago beltzarena da. Ispilu honen ahalmenaz ideia bat izan dezazun, Andrei, esango dizut ispiluan “cats and milk” idatziko banu, Google-ek 7.130.000 aukera eskainiko lizkidakeela oraintxe, horietako lehena hauxe: *Cats and lactose intolerance*. Edo: *Should I give my cat milk?* Edo: *The Truth about cats and milk. Is milk good for cats?*

Badakit hau arraroa egingo zaizula: ziur nekeza izan zela esnea edaten zuen katu beltza errodatzea, ezta? Une epifanikoa bete-bete harrapatzea datxa hartan, baina gaur egun, Youtuben milaka bideo jartzen ditu edonork, nork bere katuari grabatuak, eta jendeak ikusi egiten ditu gero, ongi argiztatuta dauden ala ez, aski poetiko diren ala ez lar arduratu gabe. Zure katuak konpetidore zatar asko dauzka.

Ispiluak, lehen ere aipatu dugu ginetik, kontrolerako tresnak ere badira. Cambridge Analytica izeneko enpresa batek ispiluan barrena egindako gutako bakoitzaren ibilera guztiak aztertzen ditu xehe-xehe, eta haien robot-ek, milioika datu prozesatu ditzaketenek, existitzen omen diren 32 nortasun “nitxo”etako batean sartzen gaituzte. 32 nortasun mota daude, nonbait, ez gehiago **[según CA, Cambridge Analytica, dedicada a la explotación de datos con fines políticos y comerciales, sus robots recogen millones de datos los que nosotros dejamos al navegar por internet, y después de procesarlos los utilizan para colocarnos en uno de los 32 nichos de personalidad que tienen identificados]** Amorrúa ematen didanez sailkatua izan eta nitxo batean denbora baino lehen sar nazaten, neroni behintzat hasia naiz Delfoseko orakuluari internet bidez nirekin zerikusirik ez duten gauzak galdetzen: search google izokinaren arrantza El Salvadorren/ search

google cómo arreglar pinchazo Pirelli traileren carretera secundaria tejana/ search google Cosechadoras de trigo de segunda mano en oferta/ search google zapatero remendón en Djibuti / eta abar.

Baina gehiegi luzatu naiz honezkero, Andrei. Nire hurrengo mezuan Donald Trump izeneko morroi bati buruz hitz egin nahi nizuke eta Vladimir Putin izeneko beste morroi bati buruz ere bai. Galdetuko dizut baita ere zergatik duten errusiarrek horren gustukoa urre kolorea. Bitartean, mila esker zure ispiluagatik. Izan ere, Walter Benjaminek esan ohi zuenez, badira belaunaldi ezberdinen arteko akordio sekretua sustatzen duten sormen lanak eta *Ispilua* filma horietako bat da. **[Walter Benjamin habla hablaba de creaciones que propiciaban un acuerdo secreto entre generaciones y “El espejo” es una de ellas]** Bai, pentsatu nahi nuke gure ispilu infantil ttipiek, patrikako sonajerotxo hauek, linterna lixtopasatu hauek, gauez, batzuetan, amets egiten dutela helduarora heldu eta handitutakoan eta Tarkovskiren ispilu bilakatzearekin.

Adeitasunez,

Harkaitz Cano